

 BOOKTEGI

osminog

PATXI LÓPEZ DE TEJADA FLORES



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

PATXI LÓPEZ DE TEJADA FLORES

osminog

Orain da ordu erdi bat azkeneko hegazkina joan dela
eta hiltze txarreko auzo honetan putzutik ura ateratzera hatorkit,
bizitza aski luzea da asko aldatzeko
eta dena dela gehiegi ikusi dugu bandera eta ospitaleetan,
alfonbretatik tapizak egin dizkinagu gela guztietan
eta ez doa inora inor dagoeneko,
umeeek bakarrik kantatzen dute kaleetan, ezin dinagu sinetsi zer zorte gutxi
izan dugun,
ez ona ez txarra, merezi genuen arabera jaso genuen edo ia,
barkamenaren bat izan ezik,
eta horrekin ezin izan genuen ezer aurkitu, ordu eskas bat falta da portuko
azkeneko taberna ixteko
eta putzutik ura ateratzera hatorkit.

Zer gutxi den gehiegi mintzatzea,
zer gertu dauden txoko guztiak,
zenbat denbora behar den gauza bakoitza galtzeko,
zer erreza den otoitz egitea jainkorik ez dagoenean,
zein laburra eta zein luzea den dena, inguratzen gaituen ia oro
menperatzen dugu,
zer ahanztura-kapital agortezina pilatzen dugun,
zaila den bakarra gu gara.

Telebistak bi egun daramatza piztuta gelan eta bazkalordua eguzkitsu
dator,
ostiralean bularra eskuztatu nian fotokopiategian, elektrizitaterik gabe zer
egingo genuke,
airea zikina da auzo berrian,
tesia ez dizute ontzat emango
eta garabiak kotxea eramane zidan;
irabazten dudanean ez du ezertarako balio.

Ni eta nire ezkortasuna zama bat gara hiretzat,
eta hi eta hire ametsak bazarete ere bai niretzat,
berria erosten dugun arren
berriro hasten garenarena egiteko
segitzen dugu,
baina ez gara inoiz helduko
hotelen bizitzara, inora,
barruan daramagun musika trumointsua da, benetan,
eta horregatik ez diogu elkarri aditzen, denbora urria geldituko baitzaigu
beti.

Ziztua lehortzen denean orbainik okerrenak uzten ditu,
orbain zuriak, goriak,
ez du ezerk erretzen garajeen argia baino gehiago:
muga zeharkatu dugu jadanik
eta ez dago atzera jotzerik,
edalontziak zikinak daude,
poliziak azpian ez dira barre egitetik gelditzen
hi eta biok ez geniolako elkarri agurtzen aspalditik,
behar den bezala esan nahi dut,
eta norberak berea egin behar du, hau ez delako bizitza,
dena azkarregi doa,
eta guzti hau ez dakigulako zer demontre nahi dugun.

Jana bilatzeak ez du aisialdi askorik uzten eta daukaguna hildakoekin
hizketan ematen dugu, liburuetan,
uda betean hotz gara,
dena gertatu da eta denok lasai gaude, aspertuta, bizirik,
berandu hasten gara,
guda guztiak bukatu dira
eta dagoeneko ia mundu guztiak
bere lo-horma-hilobi bilatu du,
zero kotatik behera denak,
eta gu hemen, hamaiketan, makilak bezala beren itzalarekin.

Ez dugu ezertan sinesten jadanik,
ez jainkoengan, ez baloreetan,
ez amodioan, ez adiskidantzan,
milaka hiltze alfer eta gero,
genetikoki, ebolutiboki alferrak,
bizitza laburregia da zerbait handia egiten saiatzeko
baina aski luzea guztiari iruzur egiteko,
eta horregatik garunaren erlijioan galtzen gara,
ametsen eta genitalen fedean,
gauza bi gelditzen baitzaizkigu soilik:
zer garen jakiteko ezintasun hori,
aurreko gauza bera ote garen gutxienez,
eta amodioaren edertasuna ezagutzeko gaitasuna,
besteena.

Ubi sunt,
galdera gehiegi inoiz egin behar ez zirenak,
kontinenteko tunel oro barneratu dugu
eta gasolindegia guztietan edan,
baina kobazuloetako errautsetakoak gara gu oraindik, eta ez dizkiogu gure
buruari barkatzen argiaren krimenak.

Urezko, airezko eta lurrezko masa likatsuen artean
hi haiz lehorra den bakarra,
gainontzekoak presaka dabilta, aniztasunak jota, nahasiak,
okertzen beti,
baina nik hi haukat, hi haizena
eta ez haizena amaitzen,
hi, hire jakindurian badakinala
beti egongo dela gu baino zailtasun gehiago gainditu dituztenak,
eta haratago joan direnak,
bake hori daukana,
egoten jakin ahazteko beharrik ez daukana, erloju eta errepide eta
aireportuen artean
hi haizelako hemen gelditzen den bakarra.

Lehenengo lezioa aintzarik gabe bizitzea izan zen,
bigarrena iragankortasuna,
ez dela ezer geldituko,
hirugarrenik hainbeste prestatu ondoren ezertarako balio ez dugulako
jabetasuna, beste bat funtsezkoa gauzak guri pasatzen zaizkigula ere bai,
eta tontoengandik aldentzen gaituen bakarra zera dela
ez dakigula asuntoa nola doan,
eta garrantzitsuena, azkenekoa, lezioa, leziorik eza izan zen, eskolarik
gabeko eguna,
ezereza, ez garela lehengo pertsona berak, eta ni zer naizen ezin jakinik
hiregana nola arraio saia naiteke iristen sikiera.

Zintzoa edo gaiztoa hitzak ez dugu dagoeneko erabiltzen,
hitz kaikuak dira, sinplistik,
eta gu konplikatuak gara oso, oso argiak, sofistikatuak, denetik itzuliak,
berrehun telesail ez baitatoz alferrik,
ez gara zuzenak, ez da inor zuzena,
finak gehienez, naturalak,
aurpegian ikusten zaigunez,
hainbeste bizi baitugu.

Lehen merkea zen oro
denok gure denbora oparitzen genuelako ia, orain lan egin gabe ezin da
bizi
eta gure astiak lehen baino gutxiago balio du,
argia den bakarra ondoko hau baita:
guztiak garrantzia irabazten doala gu izan ezik.
Nork daki gaur egun zenbat kostatuko duen hik niri uzten didanak,
itxoiteak.
Hobeto jaten dugu baina lo gutxiago egiten, nork gogoratzen du fresko
esnatu ginen azken aldia,
eta erne ordu eta argi kopuruaren areagotzea izan arren
gero eta jardun okerragoetan gastatzen dugu bizitza.

Aberatsak ez daude itxoitera ohituta,
gu bai,
heriotza beste bizitza era baterako iragatea ez denik
dakigun arren,
dena oso luzea izatera iris baitaiteke,
baina hobe da beti
gabeziaren meategi hezeetan zahartzea gure arbasoen modura
hutsaren apal beteetan gelditzea baino,
ez galtzea inoiz zeruaren zaporea.

Denak uraren zaporea dauka,
eta nonbait dirua metatzen da,
eta gu dagoenari moldatzen gara
bidean zerbait galdu ez baikenuen,
oraindik deus zor ei dugun arren
izkina bakoitzean lizuna topatzen dugulako, hiri berrira iritsi gara eta,
lau miloi eta erdi biztanle
eta ez dago inor inon,
ez gauean ez egunean,
non sartu al da mundu guztia,
beraiek bakarrik dazaguzkiten txokoetan biltzen dira,
gu gure bizitzetako sasoia galtzen dugun bitartean,
begira egunkarian ea gaur gauean telebistan zer jartzen duten,
"Mundu berriko aurrelariak metropolian dauden
bere gurasoen hilobiez gogoratzen dira".

Eguzkiak mundutik bilatzen gaitu
gure oroimenak, gure biziaren itzala
oso bazter txikietan kabitzen dira baina,
eta gu non,
beti prest, zertarako prest,
berandu eta presaka iritsi garelako guzti honetara,
eta orain dakigunak
ez du ezertarako balio.

Hiru txakur dira bakarrik
bizitza jaten dutenak,
pobrezia, itsustasuna eta lotsa,
benetan ez dugu ez bata ez bestearen errua, pobrezia duintasunaren
salneurria baita, itsustasuna izpirituaren forma,
eta lotsa gelditzen zaigun bakarra
elkar zapaltzen ez amaitzeko,
jakina hori denak ez duela
gehiago izateko grina hiltzen,
ezta gehiago izateko dirua, edertasuna
eta koldarkeria behar direneko egiaren J
jabetasuna,
baina zer daukate beraiek
itxaropena bera ere ez denean behar,
amets zailagoak?
Ziurtasuna,
gu baino ziurtasun gehiago behintzat.
Eta zer? Ezer ez.
Dakigunean amodioak ez duela betirako irauten
zera gelditzen zaigu bakarrik,
gure buruaz uste duguna.
Jan diguten gaztaroaren zauriak ere bai.

Gaztetan honetaz eta hartaz pentsatzen ginela
ondorio berara iristen ginen:
hau gabe pasa gaitezke, zertarako balio du hori egiteak,
hain da garestia, hain hantustekoa,
ez al dakite dirua zertan gastatu,
soberako dirua kasinoetan, jatetxeetan, hoteletan,
arropetan, urrean, kotxeetan
zihoala uste genuen, eta orain, garbigailua hondatzen zaigunean,
etxe madarikatuaren hipoteka alaba baten bataioarekin
batzen zaigunean
honako hau diogu, nondik aterako dugu diru hori,
zor gehiagotan sartuko al gara?,
bizitza bidaiarik egin gabe doakigu,
ardurak eta kezka arruntak metatu besterik egin gabe,
baina azkenean berdin bukatzen gara denak,
ez zoriontsu
ezta lurpeko zenbait hezur zuritan ere, bakoitzak ahal duen neurrian
dirua gauza tenteletan xahutzen baizik, ahanztura erosten saiatzeko.

Agian behar den hipokresia baino gehiago ez daukagu,
mundu guztia adeitasunez agurtzen ikasi dugu,
gainontzekoenaz kezkutzen garelako itxura egiten,
gure bizkarkoitasuna naturaltasunaz janzen,
eta elkarri sosa ateratzeari ekiten diogu oso duinki lanean,
hori bai, guri lapurtzen digutenean... ordaintzen dugu.

Bederatziak iristen dira eta kalea itzalez betetzen,
jana dago mahaiaren gainean, sabaia, berogailua eta telebista,
gabon, gabon, berandu da eta,
gabon hi, gabon ni.

Gaueko hiru zatietan
denok gure zalantzak izerditzen ditugu baina gure belaunaldian finean
munduko komeriarekin jarraitu dugu,
gu ere,
benetako zerbait gertatzen denean txunditurik gelditzen gara, elkar
begiratzen dugu
desarmatuta, harrapatuta,
baina ezkutatzen hasten gara berehala
eta emanaldiarekin jarraitzen dugu,
gu ere,
animalia bitxiak izan baikara,
hi eta biok,
gu ere.

Gizarte irritsak galdu ditugu,
argi patiora dagoen
konpondu ez genuen
hautsitako leihoan
ez dugulako elkar ikusten;
hain zuhurra den izadi madarikatu honek terrenta aizuna besterik ez digu
irakatsi; gure burbuilen goma distiratsuan zikinkeriak gure bisaiaren eitea
itzultzen digu,
adinak bista hiroitzen omen;
gazte mantentzen gaituen bakarra zera delako,
elkarrekin gaudenean
bakarrik mintzatzen garela.

Urteak adarretatik erortzen dira eta solairuan usteltzen eta desagertzen,
eta halere erloju ezorganikoak egunero infinitesimalki
atzeratzen dira, ordu oro, segundoro, geletako zeruak udan hautsa euria
egiten duen bitartean,
eta gauza horietako batere ez da gastatzen, gure begiak, gure mihia
higatzen zaigun bezala,
eta kanpoko mundu erreala
gure kontzientziaren irudikapen bat besterik ez dela esan dute,
gizajoak, gizajoak gu, gizajoak denak,
urrea jartzen dugu bularrean eta eskuetan zerbait gure irauten duena,
garrantzia daukana, distiratzten duena
geldi dadin.

Eritegietatik aireportuetara eta bueltan,
joan etorriko txartela saldu omen ziguten gehiago kobratu gabe,
argiaren gaindiak denbora behar duelako nahitaez
bere itzal osoa lagatzeko,
eta hori baino lehen hiltzen gara,
bero oraindik,
gure erlijio zuriarekin, itxaropen bakarra ematen duena:
ea ez diguten iruzur egiten
eta eritegi eta aireportuen artean
zaharrak amaitzen garen,
distirekin betaurrekoetan.

Martina Rubio bakarrik mintzatzen da, besoa apurtu du,
igandeko arratsaldeak kafe edaten ematen ditu tabernetan,
baina astelehenetan bizitzaz betetzen da eta ez dauka gonaren beharrik,
ez dabil bikote bila eta bere gezurra txikia da,
erosoa eta tristea,
bere bizitza bezala, bera bezala,
pozik dago,
zer pentsatuko ote du.

Gauaren zama,
gauak mendietan uzten duena,
ur astuna,
maitatuaren ilean ihintza,
gure baitan,
gure leihoetan,
bukatzen du bere lana
gauaren zamak.

Oposiziogileak bezala
dena karta bakar batean jokatu dugu,
eta guk ere irabazi egin genuen,
zer irabazi genuen,
terrentako berrogei urte,
oraindik gure dendak zabalik dira uelako auzoan,
bost besterik ez daramatzagun arren, zerbait gelditzen omen da
gure arropak uniforme direlako
oraindik,
zerua Madrilerako bidea,
eta ozeanoa
fondoan entzuten den
bortizkeria giro hori,
oraindik.

Geneukana eta ez geneukana galdu dugu, begirunea hain da artifizia eta
aspergarria, porroten meteorologia azkarragoa da ba, eta ez diegu gurasoei
ezta seme-alabei begiratzen orain,
pilatuta daukagun iragana ehortzi nahi dugu bakarrik
ez dezan inork aurki, ez auzo triste honetan behintzat,
hiri guztiak berdintsuak baitira orain,
kristal oro ispilu, erakustokietan batez ere, honela bagoaz pobreziaz berba
egiteari utzi beharko diogu.

Materiala hondatu zaigu,
epea amaitu zaio, gutxiegi erabilia izan da, ez da asko gelditzen eta
gelditzen dena zaharkitua da,
lehenengo prestazio haiek ez dauzka,
eta pentsa orduan goizegi ez gastatzearren ez ginela beraz beti baliatzen
eta gogoekin gelditzen ginela;
honezkero eguzkia ez da bere azalean distiratzten.

Kreditu txartelak bizitza hilabete bat aurreratzen digu,
denbora asko da, eta betiko izan daiteke,
ez dugu janarian gastatu behar, alokairuan, autoan,
galtzen diren gauzetan,
gure garaiak gaixoak bizirik mantentzen dituelako dena dela,
eta aspalditik aurreko hilen zorrak ordaintzen erabiltzen dugu dirua,
tira dirua ez, kreditua, etorkizuna,
eta era horretan biharra bera ere ez da gurea dagoeneko,
zor dugu.

Okerretako autobus linea hartu dugu,
beste auzoak dira, beste zahar batzuk, munduaren ipurdia,
han jaitsi
eta autobus zuzena aurkitzen dugunerako, gure inguruetara hurbiltzen
garenerako, ordu eta erdi batean,
gurean beste jende bat bizi da
eta gure ama hil da.

Kulturak iragana desmitifikatzen digu eguneroko miserien berreketa begien
aurrean jartzen,
gogoan nonbait,
urteen gurpilean denok izan baikara inor beti,
hau beste egi jasangaitz bat dun,
gero eta gehiago eta gero eta gutxiago,
eta zientziak urritzen gaitu jo eta su,
ez baitago lan neketsuagorik
eta elkarren beharra gehiago agertzen digunik
gure burua ezerezaz betetzea baino.

Ez da urterik urte bizitza garestitzen doala gu garela garestiak garenak
baizik,
laburra da bizitza bakun bateko grina
dirua behar dituzten pizgarri eta aldaketak behar baititugu azkenean,
heriotzarako beldurra ziurtasunen ametsa baino indartsuagoa omen da
eta horrela uztea gure ahalbideen gainetik suertatzen da
ia beti.

Zure aitaren hiletetan eliza erdi hutsik zegoen,
katedrala aukeratu zuten baina, ez dakit ongi edo gaizki,
holakoetan jendeak zutik izerditzea ere, hotz harekin,
ez dute berokia ohi kendu tenpluan,
batek ez du inoiz asmatzen.

Laga nazan argi pittin bat uzten
hire baitan, hire erraietan kiskaltzen
goiz hotz honetan, ipurmasailak
trinkotu baitzaizkizu, hor, bainugelan, ispiluan ez dakit zer arakatzen,
ezpainak eta ilea epelak,
su apur bat egin dezagun, argi pittin bat, gautzen dela honezkero.

Zoriontsu izan arren
gau goiztiarrak atsekabetzen gaitu,
neguak iragana dakar,
andre berak, poltsa berak, haur berak,
parke hutsetik hi ez haiz pasa,
salmahai beroetan gogo gutxiago, posterrean itsaso zaharkituaren hotsak
baitarraie,
eta alde honetan, ilunpean,
gu eta gure abandonua.

Auto honek hilak daramatza kalean lagata, hilda ematen du argi euri bero
guzti honen azpian,
berarentzat ez dago lekurik
baina eraman dezaten nahi badun mutikoekin egiten den gauza bera egin
behar da,
hitz magikoa aipatu, xiringa,
auzoko umeak egiatatik babestu behar direlako gaur,
deskonposaketa, porrota ez dezaten ikus, sexua telebistan soilik, eta gauza
berriak; kanposantuko harresia hain da luzea
ezen ez dakigun dagoeneko zein aldetan garen,
hainbeste urteren buruan, euri epel honen azpian.

Animaliek gurasoak badauzkate ere bai
eta ez dute gure autoerrukia sentitzen gure patuagatik,
antzinakoek elkar maitatu eta itxaron zuten ere bai
eta horretatik ez da ezer gelditzen ezta,
musikak loreak hasarazten du baita
baina isiltasunaren edertasunak betetzen gaitu gu ere.

Berria garestia denez
gure munduan zerbait berria sartzen zen bakoitzean
hauxe genion: ez dugu horren beharrik,
hori gabe pasa gaitezke,
honekin, horrekin eta harekin aski dugu bizitzeko,
baina besteen nahia ez genuen kontuan izan,
haien beharrak,
edo agian bai, baina ez gureak, norgehiagokeriatik at ez omen dagoela
zorionik,
"gehiago" hori ezberdinak izatea besterik ez bada ere, uko egiten jakitea,
eta egun jadanik ezer ez zaigunez benetan berria iruditzen
eta iristen dena kostatzen duena balio ez duela hautematen
dugunez, eta orduko gauzak ez direnez ezer, igandeko goizeko zoruko zur
epela oin biluzik zapaltzen dugu
eta zera pentsatzen dugu: ez zaigu ezer gelditzen,
berrogei urte ikasteko ez daukagula inoiz behar adina,
eta gu ere ez garela ezer.

Denari baietz esaten ez gara haratago heldu,
eskatzen zigutenean ez zuten behar eskatzeagatik egiten zuten bakarrik,
eta bizitza joan zaigu.

Hiriburuak bere asetasunarekin gauza da gogoak kentzeko ordu eskas
batzuetan, baina gu zehazgabetasunerako dohai bakarrarekin
gai gara gure ehunak berrerratzeko.

Eskolatik hilobira
zein maitasun gutxi dagoen.
Zein zaila den gure neurria asmatzen.

Almudenako hilerriaren mendixka baten gainean
zera galdetu huen, hauetako zenbait izan ziren asturutsu,
isiltasuna nagusitzen delako beren kanten gainetik,
eta lurrak beren kezka eta arazoak xurgatu ditu, baina alferrik, horrek ez
baitie ezer itzuliko,
iluntasunean ezin baitaitezke libre izan, galtzen jarraitzen duten arren,
oroimena bada ere,
eta denek nahi dugun, behar dugun zerbait gehiago hori
harri hotzezko pisu baten azpian berotzen omen da.

Bizitzan dena kontaktuen bidez lortzen da, quid pro quo, do ut des,
ez duelako inork ezer debalde ematen,
ondo gelditzearen eroskeria garestiegia baita eta merke samar,
pertsona egokia ezagutu egin behar da,
hitz aproposak behar denean esaten asmatzen,
beti kexaka gabiltzalako, baina sistema
ez da hutsala,
horrenbeste zentzu dauka babesen merkatuak
gure beharrak plazan asetzeko orduan
ezen ez dakigun ondoren gure prostituziotik seme-alabak nola aldendu.

Begira nola gauden
dagoeneko ez diogu elkarri galdetzen
ezta errua norena den ere,
norena da errua,
guztiona, inorena alegia,
animaliak bezala beti gazte izan gintezkeen agian,
edo beharbada ume ez izanak
hondatzeko etorkizun bat ez izatea emango ligukeen,
baina egun gehiegi dira, hil eta urte gehiegi, eta jadanik ez dugu ea errua
norena den galdetzen,
eta baliteke hori ez izatea galdera, norena zen errua,
benetan ez dugulako amodioaren beharrik bihotzean,
justiziarena baizik,
justiziarik balego galeran, kolperik gabeko ehortze honetan,
sukarrik gabeko erian,
galdera handia,
gurasoek ere zahartzaroaren lehen seinaleak agertzen zitzaizkigunean
ez ziguten egiten ausartu.

Hiri batetik bestera joateak
hiltzeak zer garrantzi gutxi daukan
agertzen digu,
nola hil gaitezkeen behin eta berriro
eta nola era horretan soilik
izan gaitezkeen gure buruaren jabe, zoriontsu,
eta nola aldi berean iraganak ez duen gurekin amaitu oraino,
eta betiko kale eta bazterretara lotuta gauden,
barrutik,
gure jabe direlako, zoriontsu.

Gerrako gailurretako hotzaren ostean etxarte eguzkitsuen asperra heldu zen,
hori baitira gure gurasoak
etengabeko bazkalondo bat.

Lantzen ez ditugun soroek
gure arbasoen haragi eta hezurrek bete zituzten,
haiek eta haien itzalak eta haien harriak gaur dakuskigunak.

Eta gu gauza bera gara,
zehazki gauza bera,
sinetsi edo nahi ez arren,
planetek eta izarrek beren orbitei darraizkien legez
gure zikloi gatzazkie, pentsamenduan, ezkerra eta eskuina, askatasuna
eta leialtasuna,
abertzaletasuna eta oroimenik gabeko hiritartasuna,
gazte belztasun eta argi zaharra.

Gu, dena ikusi genuenak eta dena genekienak,
hi eta ni ere bai, denok.

Beti buruan darabilgu ezeri
erabat lotu ez izateko damua,
ez lan arloan, ez artean, ez eta harremanetan ere,
hori ezer ez izana bailitzan, inor ez,
baina orduan noiz izan gintezkeen ni, noiz bizi gintezkeen gure baitan,
denbora eta bakardaderik gabe ez baitago aukeratzerik,
eta astia dugunerako askatasunak ez du oroipenik lagatzen,
akatsek bai.

Gure hiriko hoteletan gauak pasa behar ditinagu,
beste lurretako, beste kontinenteetako ardoak edateko,
gure eskolako patioetara itzuli behar dugu, umezaroko auzora, bizkorrago
zahartzeko, hire izter zurietan eta nireetan
Afrikako euria eta uzta daude,
etxe hau eta bere argi gordinezko triangeluetatik
beste batera jo behar dugu gazte izateko berriro.

Diru koipetsua, denok zikintzen gaituena. metal soinua dauka baina kristala
da,
gero eta aldi luzeagoak
gero eta txanpon xeheagoetan metatzen ditu,
he payd his prize diote ingelesek
zorrik gabeko hildakoez,
baina gu handiagoak izan arren
prostituzio bizitza oso batez
ezin dugu seme edo alaba baten
ezta ziurtasunik merkeena ere erosi,
dirua, gaiez beteta eta bizitzaz hutsik,
hotza,
ez da inoiz hiltzen baina beti zaharra da.

Ez da planifikazio eza ezta zorte txarra ere,
ez da porrotaren legea izan,
ez usteltzea ez haustura,
ez da kimika ezta geografia izan,
ez argiaren intentsitatea
ezta barreneko musikaren bolumena ere,
ezta igotzen dena erortzen dela sikiera,
zera izan zen,
ez genuela une egokian elkar topatu,
goizegi zenbait aspektutan hiretzat,
beranduegi beste batzuetan niretzat, gainezkoentzat lanpetuta zeudenean
artean.

Gure bizialdiko hainbat boladetan
zirkulu ezberdin anitzetan ibiliak gara. pertsona bakoitzak badauka bere
lekua
nire eta hire buruan
eta dagokionean esertzera dator;
asuntoa zertan datza, ea nork kontatzen duen istorioa,
gogoratzen al zara egun haiekin
eskolan, bulegoan edota hondartzan,
orain haiek non diren galdetzen gara,
gu bezala
egun arraroak zuritzen,
errondatzen
gaueko azken atearen inguruan.

Zein unean hartu genuen erabakia garena izateko,
eta zer genekien orduan,
noiztik iritsi gara pentsatzera
behinola zatiak ginela eta orain osoa,
gure denborarekin zer egin izan dezakegun, egin ez genuena jakina, eta
egunak inorenak baziren
ispiluari galdetu
merezi zuen izan ezik beste guztia,
unea zein ote zen,
hor aurrean dagoenetik benetan gu zer den.

Aberatsa zen,
errebaletako etxe batean
bere gauzak gordetzen zituen,
liburuak, diskoak, argazkiak
eta oroigarri pertsonalak,
bere umezaroko gauzak,
baina gauero
hotel gela batera zihoan lotara,
ahal bazen egunero beste batera,
bera izatetik atsedeen hartzeko,
txiro eta arrotzaren askatasun
era batez gozatzen zuen
aldi berean burgesen gizarte-burbuila erosiz.
Garestia zen,
baina aberatsa zen
bera izatetik atsedeen hartzeko adina.

Dirua nondik zetorkion ez galdetu.

Metalak distiratzten du Chernobylgo norian, kaleetan igandeak suertatzen
dira luzeak,
ez astelehenak,
dena dela hemen ere hauts oro errauts delako,
ura astuna,
eta erlojuaren kristalak distiratzten duenerako
hemen ere dena iragana da
eta ez dago inor.

Nire kaleko bat hogeita hamazazpi urterekin jakinduriara iritsi da, edo
argialdia heldu zaio
Gautamari bezala,
nonbaitetik, goitik, barrutik,
artearen bitartez, zientziaren bitartez, bizitzako eskarmentuaren bitartez,
nolabait, behin-behinean, gaurkoz,
ezereza onartzea lortu du, bete antzigabetasuna,
guztiona, denarena eta berea,
demagun,
eta kontzientzia, sentiberatasun horrek zorionik emango ez dionaren jabe,
grina pixka bat kendu akaso gehienez
eta horrekin batera zerbait egiteko gogoak, hori gutxi ez izanik ere,
bat batean ez du jakin familiakoei eta lagunei
nola esan, nola ospatu,
seme-alabei batez ere.

Gure garaian heriotza tabua dela diote, ezkutatzen dugula edo ezkutatzen
digutela, ordainduz jakina,
ez ditugula hiletak eta ehorsketak behar bezala burutzen,
ezta kanposantuaren aldamenean aparkatzen,
eta inoiz ez dugula aipatzen,
ezta behar denean ere,
gaixoa eta ustela baztertuz,
eta behar dela,
baina... animaliek horrelakorik egiten al dute
galtzen dutenean?
Ez al dira gu bezain naturalak
edo ez al dakite bizitza zertan datzan?
Ez al dakite bizitzen?
Makabroa guk jartzen dugu,
ez dirudi beraiek hilerri
edo mamu kutsu horren beharrik daukatenik,
izutik datozenak, ez gupidatik, neanderthalen eta cromagnonen hil errituen
gure jarauritsi oparoa zera baitela, elementuen taula periodikoaren eta
pasarelen argiaren atzean
kokatuko genuela gaua,
baina itzalak darraizkigu oraino,
eta hildakoek bizidunak
menperatzen eta agintzen dituztela gurean

Dena gehiegi da bizitzan,
aitatasuna gehiegi da,
lana gehiegi da,
bikote harremana,
denbora gehiegi, aldaketa gehiegi,
on gehiegi eta txar gehiegi,
laguntasuna ere gehiegi izatera iritsi ohi da, elkar gainezkatzen baitugu
erabat,
baina garaitzen gaituena finean ez da neurrigabekeria
ez aurreikusi gabekoak,
baizik eta erabaki baino lehen
asmatuko ez dugula jakin arren
kalkulatu beharra dugula gero eta gehiago, eta egunero aurrera egin behar
da.

Bizitza osoa heriotzarako prestatzen eman eta gero ez dakigu ezta ondo
edo gaizki egin dugun ere,
ez mundu honetan ez agurtzean,
teilatuen gainean zeru lodi gris berberak, argi barban bera denboraz
soberan, teilatuen azpian bizirauteko gogo
eta grina egozentriko berak
gero eta ilaunagoak,
hori baita gure seme-alabei uzten dieguna, hori betikoa dena, eta tematu
arren
ez dena ez ona ez txarra.

Elektrizitatearen porrota gara,
elektrizitate mende eta erdi batek ez digu ekarri
irudimen gehiago besterik,
errealitate gutxiago,
elektrizitateak ez digu argi gehiagorik eman, itzal gehiago baizik,
eleberri gehiago, gaueko bidaiak,
zinema, telebista, irratia,
abestiak tren eta hegazkinetan,
beste toki batean, beste garai batean izatera iris gintezkeelako ametsa,
horrenbeste garapen eta horrenbeste erosotasun
honetarako,
kristalak gara, gero eta gehiago.